



## AKTA

Cuadrilla de Ayala-Aiarako Eskualdearen **BATZARRAK** eginiko ohiko bilerarena

**2016ko maiatzaren 30ean.**

Aiarako Udalaren udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 13:00ak eta 07 minutu direnean, ohiko bilerari hasiera eman zaio, lehenengo deialdian, Ander Añibarro Maestre jauna bileraren buru dela, eta jarraian zerrendatzen diren batzordekideak bertaratuta. M<sup>a</sup> Virginia Carcelén García andrea, behean izenpetzen duena, aritu da idazkari-lanetan.

Honako batzarkide jaun-andre hauek bertaratu dira:

AÑIBARRO MAESTRE Ander (EAJ-PNV)  
ARTEXE VICENTE Alberto (EAJ-PNV)  
BASTERRA IBARRETXE Mainer (EAJ-PNV)  
GÓMEZ UNZUETA Iñigo (EAJ-PNV)  
IBARRETXE REVUELTA Juan Manuel (EAJ-PNV)  
IRABIEN MARIGORTA Miren Josune (EAJ-PNV)  
LÓPEZ LUMBRERAS Nuria (EAJ-PNV)  
MOLINUEVO LAÑA Txerra (EAJ-PNV)  
PINEDO BADILLO Iñigo (EAJ-PNV)  
SASIAIN FURUNDARENA Estíbaliz (EAJ-PNV)  
ALAVA ZORRILLA Luis Mariano (EH-BILDU)  
CAMINO MONTALBAN Itziar (EH-

## ACTA

De la sesión ordinaria, celebrada por la **JUNTA DE CUADRILLA** de la Cuadrilla de Ayala-Aiarako Eskualdea el día

**30 de mayo de 2016**

En el Salón de Plenos de la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Ayala, a las 13 horas y 07 minutos, da comienzo la sesión bajo la Presidencia D. Ander Añibarro Maestre, con asistencia de los Señores/as Junteros/as que se reseñan a continuación, se reúnen en sesión ordinaria, en primera convocatoria, actuando como Secretaria Dña. M<sup>a</sup> Virginia Carcelén García que suscribe.

Asisten los siguientes Sres./as. Junteros/as:

AÑIBARRO MAESTRE Ander (EAJ-PNV)  
ARTEXE VICENTE Alberto (EAJ-PNV)  
BASTERRA IBARRETXE Mainer (EAJ-PNV)  
GÓMEZ UNZUETA Iñigo (EAJ-PNV)  
IBARRETXE REVUELTA Juan Manuel (EAJ-PNV)  
IRABIEN MARIGORTA Miren Josune (EAJ-PNV)  
LÓPEZ LUMBRERAS Nuria (EAJ-PNV)  
MOLINUEVO LAÑA Txerra (EAJ-PNV)  
PINEDO BADILLO Iñigo (EAJ-PNV)  
SASIAIN FURUNDARENA Estíbaliz (EAJ-PNV)  
ALAVA ZORRILLA Luis Mariano (EH-BILDU)



BILDU)  
 DORONSORO GARATE Garazi  
 (EH-BILDU)  
 URIA PEÑA Lauren (EH-BILDU)  
 OTAOLA GOTXI Iaioa (EH-  
 BILDU)  
 BARRIOS MEDINA Alvaro (OMNIA)  
 GONZÁLEZ GARCÍA Nerea  
 (OMNIA)  
 SARASUA DÍAZ Txaro (EUSKAL  
 SOZIALISTAK-SOCIALISTAS  
 VASCOS)  
 JIMENEZ ESQUILAS Angel (ORAIN  
 AMURRIO)  
 TATO EGUREN Sergio (OKONDO  
 AURRERA)  
 SÁENZ DE LAFUENTE BLANCO  
 Iraida (AIARA BATUZ)

CAMINO MONTALBAN Itziar (EH-  
 BILDU)  
 DORONSORO GARATE Garazi (EH-  
 BILDU)  
 URIA PEÑA Lauren (EH-BILDU)  
 OTAOLA GOTXI Iaioa (EH-BILDU)  
 BARRIOS MEDINA Alvaro (OMNIA)  
 GONZÁLEZ GARCÍA Nerea  
 (OMNIA)  
 SARASUA DÍAZ Txaro (EUSKAL  
 SOZIALISTAK-SOCIALISTAS  
 VASCOS)  
 JIMENEZ ESQUILAS Angel (ORAIN  
 AMURRIO)  
 TATO EGUREN Sergio (OKONDO  
 AURRERA)  
 SÁENZ DE LAFUENTE BLANCO  
 Iraida (AIARA BATUZ)

Ez dira etorri, eta ezin etorria  
 adierazi dute, honako batzarkide hauek:

ALAMILLO UDAETA Gentza (EAJ-  
 PNV)  
 EGUIA BASARRATE José Angel  
 (EAJ-PNV)  
 ARTETXE ARANA Josu (EH-  
 BILDU)  
 MARTINEZ CERRILLO Iñigo (EH-  
 BILDU)  
 MEAZA CASTAÑARES Amets (EH-  
 BILDU)  
 SAN JOSÉ MARTINEZ Arkaitz (EH-  
 BILDU)  
 URKIXO ORUETA Jon Iñaki (EH-  
 BILDU)  
 VIVANCO RETES Joseba (EH-  
 BILDU)

Eskualdeko presidente Ander  
 Añibarro Maestre jaunak hasiera eman dio  
 bilkurari 13:07 direnean, Eskualdeak  
 arautzen dituen azaroaren 20ko 63/1989  
 Foru Arauaren 25. artikuluan  
 xedatutakoari jarraikiz, bilera abiarazi ahal

No asiste, excusando su ausencia,  
 los siguientes Sres./as. Junteros/as:

ALAMILLO UDAETA Gentza (EAJ-  
 PNV)  
 EGUIA BASARRATE José Angel  
 (EAJ-PNV)  
 ARTETXE ARANA Josu (EH-BILDU)  
 MARTINEZ CERRILLO Iñigo (EH-  
 BILDU)  
 MEAZA CASTAÑARES Amets (EH-  
 BILDU)  
 SAN JOSÉ MARTINEZ Arkaitz (EH-  
 BILDU)  
 URKIXO ORUETA Jon Iñaki (EH-  
 BILDU)  
 VIVANCO RETES Joseba (EH-  
 BILDU)

El Sr. Presidente de la Cuadrilla, D.  
 Ander Añibarro Maestre, declara abierta la  
 sesión, tras comprobarse la existencia del  
 quórum necesario para iniciarse la sesión a  
 tenor de lo establecido en el Art. 25 de la  
 Norma Foral 63/1989 de 20 de noviembre,



izateko quoruma dela egiaztatu ondoren, eta saiorako ezarritako Aztergaien Zerrendari jarraitu zaio.

### **1.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AURREKO BILERAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.**

Bilkura honetako deialdiari aurreko bilkuraren akta-zirriborroa erantsi zaio.

Alegaziorik egin ez denez, aho batez **ONETSI DA** 2015eko azaroaren 30ean egindako bilkuraren akta.

### **2.- EUSKO JAURLARITZARI ESTATUKO GAIKUNTZA DUEN LANPOSTU BAT SORTZEKO ETA SAILKATZEKO ESKATZEA.**

Eskualdeko presidente jaunak puntuaren aurrekariak azaldu ditu. Hauek dira:

Ekainaren bukaeran, ekonomiaren sustapeneko teknikariak erretiroa hartuko du. Lanpostu hori Kuadrillaren LZan ageri da "amortizatu beharreko" lanpostu gisa; hori dela eta, egokitzen jotzen da idazkari-kontu hartzaile plazaren hornidura araupetzea. Horretarako, ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzari horri buruzko eskaera bat egiteko espedientea abiaraztea.

Hori horrela, espedientea luzea denez, lanpostua sortzeko eta sailkatzeko hala behar delako, ezinbestekotzat jo da

reguladora de las Cuadrillas, dando comienzo la sesión cuando son las 13:07 horas, conforme al Orden del Día establecido al efecto.

### **1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.**

Se adjunta el borrador del acta de la última sesión con la convocatoria de la sesión.

No habiendo alegaciones, **SE ACUERDA**, por unanimidad, aprobar el acta de la última sesión celebrada el día 30 de noviembre de 2015.

### **2.- SOLICITAR A GOBIERNO VASCO LA CREACIÓN DE UNA PLAZA DE HABILITADO NACIONAL.**

El Sr. Presidente explica los antecedentes de este punto que son los siguientes:

A finales de junio se jubila el técnico de promoción económica. Puesto que esta plaza figura en la RPT de la Cuadrilla como plaza "a amortizar" se estima oportuno proceder a la regularización de la provisión de la plaza de Secretaría-Intervención, para ello será preciso iniciar el expediente con una solicitud al respecto a Gobierno Vasco.

En este sentido y dado que el expediente es largo porque la creación y clasificación necesita, se estima preciso



bien bitartean sustapeneko teknikari bat aldi baterako kontratatzea, aipatu lanpostua hornitzen den arte, hain zuzen ere. Arloko informazio-batzordeak eman zuen irizpena, maiatzaren 27an egindako bilkuran.

Azalpena amaitu da, eta ez denez horren inguruko eztabaidarik sortu, aho batez **ERABAKI DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA.-** Berrestea **PRESIDENTETZA,** **ADMINISTRAZIOAREN JARDUN,** **FUNTZIO PUBLIKO, KONTZEJU ETA FORU ZEIN AUTONOMIA ADMINISTRAZIO ETA BESTELAKO ORGANISMOEN ARTEKO HARREMANETARAKO INFORMAZIO BATZORDEAK** 2016ko maiatzaren 27ko bilkuran emandako irizpena, eta Eusko Jaurlaritzari eskaera igortzea estatuko gaikuntza duen plaza bat sortu eta sailkatu dezan Cuadrilla de Ayala-Aiarako Eskualdearentzat.

### 3.- **ONARTUTAKO LANKIDETZA HITZARMENEN BERRI EMATEA.**

Eskualdeko presidentek orain arte egindako lankidetzaz hitzarmenen berri eman du. Honako hauek dira, hain zuzen ere:

- Lankidetzaz hitzarmena **CAJA VITAL KUTXA FUNDAZIOAREKIN.** Hitzarmen horren bitartez, Kuadrillak gehienez ere 10.000 € jasoko ditu eskualdean prestakuntza-

mientras tanto proceder a la contratación temporal de un técnico de promoción, hasta que se provea la citada plaza de habilitado/a nacional. El asunto fue dictaminado por la Comisión Informativa del área en la sesión celebrada el día 27 de mayo.

Concluida la exposición y no surgiendo debate, **SE ACUERDA**, por unanimidad, proponer la adopción del siguiente **ACUERDO**:

**PRIMERO.-** Ratificar el dictamen emitido por la **COMISIÓN INFORMATIVA DE PRESIDENCIA, ACTUACIÓN ADMINISTRATIVA, FUNCIÓN PÚBLICA, CONCEJOS, DE RELACIONES CON LA ADMINISTRACIÓN LOCAL, FORAL, AUTONÓMICA Y OTROS ORGANISMOS, TURISMO, OBRAS Y SERVICIOS** en la sesión celebrada el día 27 de mayo de 2016, y realizar la solicitud a Gobierno Vasco para la creación y clasificación de la plaza de un habilitado nacional para la Cuadrilla de Ayala-Aiarako Eskualdea.

### 3.- **DAR CUENTA DE LOS CONVENIOS DE COLABORACIÓN REALIZADOS.**

El Sr. Presidente da cuenta de los convenios de colaboración realizados hasta el momento que son los siguientes:

- Convenio de Colaboración con la **FUNDACIÓN CAJA VITAL KUTXA** mediante el cual se aporta a la Cuadrilla un máximo de 10.000 € para realizar en la comarca cursos de formación.



ikastaroak antolatzeko.

- Lankidetzaren Hitzarmena Arabako Foru Aldundiarekin. Horren bitartez, 7.200 €-ko diru-laguntza bat jaso da Aiaraldea Euskaraz 2016 programa gauzatzeko.
- Lankidetzaren Hitzarmena Euskaltzaleen Topagunearekin. Horren bitartez, Aiarako Kuadrillak 3.000 € emango ditu 2016an Aiaraldean JALGI proiektua gauzatzeko.
- Hitzarmena AEKOarekin. Horren bitartez, Aiarako Kuadrillak 4.000 € emango ditu 2016ko eskualdeko Gabonetako erakuslehorik onenen sarietarako.
- Lankidetzaren Hitzarmena Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluarekin. Horren bitartez, Aiarako Kuadrillak 2.750 € emango ditu.

Gai horren inguruan ez denez eztabaidarik sortu, denak jakitun geratu dira.

#### 4.- ONETSITAKO AZKEN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Jarraian, azken osoko bilkuratik onetsitako dekretuen berri eman da, eta hauexek dira:

54/2015 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, urriaren 27koa. EEPtik eratorritako ekintzak gauzatzeko 06/2015 Kreditu Gehigarriak.

55/2015 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, azaroaren 13koa. Udalei ekarpenak egiteko eskaera, EEP 2015-16tik eratorritako ekintzak gauzatzeko.

56/2015 LEHENDAKARIAREN

- Convenio de Colaboración con la Diputación Foral de Álava para otorgar una subvención de 7.200 € para el programa Aiaraldea Euskaraz 2016.
- Convenio de Colaboración con Euskaltzaleen Topagunea para desarrollar en 2016 el proyecto JALGI en Aiaraldea con una aportación por parte de la Cuadrilla de 3.000 €.
- Convenio con la AEKO para los premios de escaparates navideños comarcales 2016, para los cuales se aporta por la Cuadrilla 4.000 €.
- Convenio de Colaboración con Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua en el 2016 con una aportación de la Cuadrilla de 2.750 €.

No surgiendo ninguna alegación al respecto se dan todos/as por informados/as.

#### 4.- DAR CUENTA DE LOS ÚLTIMOS DECRETOS APROBADOS.

Seguidamente se pasa a dar cuenta de los decretos aprobados desde la última sesión plenaria, que son los siguientes:

DECRETO DE PRESIDENCIA 54/2015 del 27 de octubre, Créditos Adicionales 06/2015 para acciones derivadas del PECO.

DECRETO DE PRESIDENCIA 55/2015 del 13 de noviembre, Solicitud aportaciones municipales, a cuenta, por acciones derivadas del PECO 2015-16.

DECRETO DE PRESIDENCIA



DEKRETUA, azaroaren 13koa. Ingurumenaren arloko jarduerak egiteko 07/2015 Kreditu Gehigarriak.

57/2014 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, azaroaren 24koa. Udalei 3. hiru hilekoko hirigintzako saldoa eskatzea.

58/2014 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, azaroaren 24koa. Azaroko nominaren ordainketa baimendu, betebeharra aitortu eta ordaintzeko agintzea.

59/2015 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, azaroaren 30ekoa. Elikadura-burujabetzari buruzko ikerketa egiteko kredituak gaitzea.

60/2015 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, abenduaren 4koa. Abenduko ezohiko ordainsariaren ordainketa baimendu, betebeharra aitortu eta ordaintzeko agintzea.

61/2015 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, abenduaren 16koa. López Ciurreta jaunaren kontratua bukatuko dela aurrez jakinaraztea.

62/2015 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, abenduaren 21ekoa. Abenduko nominaren ordainketa baimendu, betebeharra aitortu eta ordaintzeko agintzea.

63/2015 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, abenduaren 23koa. 2016-17rako Kuadrillako Baliabideen eta Zerbitzuen Gida kontratatzeke 2. plegu arautzaileak onestea.

01/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, urtarrilaren 1ekoa. 2015eko aurrekontua luzatzea.

02/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, urtarrilaren 11koa. Gastu orokorren behin-behineko eskaera eta 1. hiru hilekoko zerbitzuak.

3/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, urtarrilaren 11koa. Aldundiari laguntza eskatzea 2016rako euskara-teknikariaren kontratazioa finantzatzeko.

04/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, urtarrilaren 14koa. Udalei 2015eko 4. hiru hilekoko hirigintzako saldoa

56/2015 del 13 de noviembre, Créditos Adicionales 07/2015 para actividades medio ambientales.

DECRETO DE PRESIDENCIA 57/2015 de 24 de noviembre, Solicitud saldo urbanismo trimestre 3º.

DECRETO DE PRESIDENCIA 58/2015 de 24 de noviembre, Autorización, reconocimiento de la obligación y ordenación de pago de la nómina de noviembre.

DECRETO DE PRESIDENCIA 59/2015 del 30 de noviembre, Habilitación de créditos para estudio soberanía alimentaria.

DECRETO DE PRESIDENCIA 60/2015 de 04 de diciembre, Autorización, reconocimiento de la obligación y ordenación de pago de la extra de diciembre.

DECRETO DE PRESIDENCIA 61/2015 de 16 de diciembre, Preaviso de fin del contrato del Sr. López Ciarreta.

DECRETO DE PRESIDENCIA 62/2015 de 21 de diciembre, Autorización, reconocimiento de la obligación y ordenación de pago de la nómina de diciembre.

DECRETO DE PRESIDENCIA 63/2015 de 23 de diciembre, Aprobación de los 2º Pliegos reguladores de la contratación de la Guía de Recursos y Servicios de la Cuadrilla 2016-17.

DECRETO DE PRESIDENCIA 01/2016 de 1 de enero, Prórroga Presupuestaria del Presupuesto 2.015, DECRETO DE PRESIDENCIA 02/2016 de 11 de enero, Solicitud provisional G.G. y Servicios trimestre 1º.

DECRETO DE PRESIDENCIA 3/2016 de 11 de enero, Solicitud de las Ayudas forales para financiar la contratación del técnico de euskera 2016.

DECRETO DE PRESIDENCIA 04/2016 de 14 de enero, Solicitud saldo urbanismo trimestre 4º-2015.



eskatzea.

05/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, urtarrilaren 18koa. 2016ko 1. hiruhilekoan Hondakinak Kudeatzeko Zerbitzuagatiko udal-ekarpenak eskatzea.

06/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, urtarrilaren 25koa. Urtarrileko nomina ordaintzea baimendu, betebeharra aitortu eta ordainketa agintzea.

07/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, otsailaren 1ekoa. Olio erabilia biltzeko zerbitzuari dagozkion 2015eko urria eta abendua bitarteko udal-ekarpenak eskatzea.

08/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, otsailaren 1ekoa. Diru-laguntza izendun hau eskatzea: Baldintzatu Gabeko Finantzaketa.

09/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, otsailaren 9koa. 2015eko zerbitzuei eta gastu orokorrei dagozkien ekarpenak arautzea.

10/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, otsailaren 10ekoa. 2013ko EEPren azken ekarpena.

11/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, otsailaren 9koa. ENVISERri 2015eko gastuak eskatzea.

12/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, otsailaren 23koa. Otsaileko nomina ordaintzea baimendu, betebeharra aitortu eta ordainketa agintzea.

13/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, otsailaren 29koa. 2015 ekitaldiko likidazioa onestea.

14/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, otsailaren 29koa. 2016ko Arabaren aldeko VITAL programa esleitzea.

15/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, martxoaren 1ekoa. 01/2016 zenbakiko kreditua eranstea (enplegua sustatzea).

16/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, martxoaren 1ekoa. 02/2016 zenbakiko kreditu gehigarriak (2015eko gastu orokorrak erregularizatzea).

DECRETO DE PRESIDENCIA 05/2016 del 18 de enero, Solicitud aportaciones municipales por el Servicio de Gestión de Residuos trimestre 1º 2016.

DECRETO DE PRESIDENCIA 06/2016 de 25 de enero, Autorización, reconocimiento de la obligación y ordenación de pago de la nómina de enero.

DECRETO DE PRESIDENCIA 07/2016 del 01 de febrero, Solicitud octubre-diciembre de 2015 aportaciones municipales por el Servicio de Recogida de Aceites Usados.

DECRETO DE PRESIDENCIA 8/2016 de 1 de febrero, Solicitud de la Subvención Nominativa "Financiación Incondicionada".

DECRETO DE PRESIDENCIA 09/2016 del 09 de febrero, Regularización aportaciones G.G. y Servicios de 2015.

DECRETO DE PRESIDENCIA 10/2016 del 10 de febrero, Aportación final PECO 2013.

DECRETO DE PRESIDENCIA 11/2016 del 09 de febrero, Solicitud gastos 2015 a ENVISER.

DECRETO DE PRESIDENCIA 12/2016 de 23 de febrero, Autorización, reconocimiento de la obligación y ordenación de pago de la nómina de febrero.

DECRETO DE PRESIDENCIA 13/2016 de 29 de febrero, Aprobación de la Liquidación del ejercicio 2015.

DECRETO DE PRESIDENCIA 14/2016 de 29 de febrero, Adjudicar el Programa VITAL por Álava 2016.

DECRETO DE PRESIDENCIA 15/2016 de 01 de marzo, Incorporación de créditos 1/2016 (Fomento del empleo).

DECRETO DE PRESIDENCIA 16/2016 de 01 de marzo, Créditos adicionales 2/2016 (Regularización G.G. 2015).



17/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, martxoaren 1ekoa. 03/2016 zenbakiko kreditua eranstea (2012ko estra).

18/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, martxoaren 2koa. 2012ko urte-bukaerako ezohiko ordainsariaren ordainketa baimendu, betebeharra aitortu eta ordainketa agintzea.

19/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, martxoaren 7koa. 2015eko HHSri dagozkion ekarpenak erregularizatzea eta zarataren mapa egitea.

20/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, martxoaren 14koa. 04/2016 zenbakiko kreditu gehigarriak (2015eko HHS ekarpenak erregularizatzea).

21/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, martxoaren 17koa. Martxoko nominaren ordainketa baimendu, betebeharra aitortu eta ordainketa agintzea.

22/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, apirilaren 1ekoa. Gastu orokorren behin-behineko eskaera eta 2. hiruhilekoko zerbitzuak.

23/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, martxoaren 1ekoa. 2016ko 2. hiruhilekoan Hondakinak Kudeatzeko Zerbitzuagatiko udal ekarpenen eskaera.

24/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, apirilaren 20koa. Apirileko nominaren ordainketa baimendu, betebeharra aitortu eta ordainketa agintzea.

25/2016 LEHENDAKARIAREN DEKRETUA, maiatzaren 10ekoa. Olio erabilia biltzeko zerbitzurako 2016ko 1. hiruhilekoari dagozkion udal-ekarpenak eskatzea.

Gai honen inguruan ez da eztabaidarik sortu, eta denak jakitun dira.

DECRETO DE PRESIDENCIA 17/2016 de 01 de marzo, Incorporación de créditos 3/2016 (Extra 2012).

DECRETO DE PRESIDENCIA 18/2016 de 02 de marzo, Autorización, reconocimiento de la obligación y ordenación de pago de la paga extra de fin de año 2012.

DECRETO DE PRESIDENCIA 19/2016 del 07 de marzo, Regularización aportaciones R.S.U. de 2015 y elaboración del mapa del ruido.

DECRETO DE PRESIDENCIA 20/2016 de 14 de marzo, Créditos adicionales 4/2016 (Regularización R.S.U. 2015).

DECRETO DE PRESIDENCIA 21/2016 de 17 de marzo, Autorización, reconocimiento de la obligación y ordenación de pago de la nómina de marzo.

DECRETO DE PRESIDENCIA 22/2016 de 01 de abril, Solicitud provisional G.G. y Servicios trimestre 2º.

DECRETO DE PRESIDENCIA 23/2016 del 01 de marzo, Solicitud aportaciones municipales por el Servicio de Gestión de Residuos trimestre 2º 2016.

DECRETO DE PRESIDENCIA 24/2016 de 20 de abril, Autorización, reconocimiento de la obligación y ordenación de pago de la nómina de abril.

DECRETO DE PRESIDENCIA 25/2016 del 10 de mayo, Solicitud trimestre 1º de 2016 aportaciones municipales por el Servicio de Recogida de Aceites Usados.

No habiendo ninguna otra cuestión al respecto se dan todos y todas por informados e informadas.





**5.- ESKAERAK ETA  
GALDERAK.**

Ez da horren inguruko ezer gehiago aipatu.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, goian aipatutako eguneko **13:00ak eta 15 minutu** direnean, bukatutzat eman da bilkura. Eskualdeko presidente jaunak sinatu du eta nik, idazkaria naizenez, sinatu eta egiaztatu dut.

**5.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

No surge ninguna cuestión al respecto.

Y no habiendo más asuntos que tratar en esta reunión se levanta la sesión cuando son las **13 horas y 15 minutos** del día arriba indicado, con la firma de la presente acta por el Sr. Presidente y por mí la Secretaria que doy fe.

**PRESIDENTEA / PRESIDENTE**

**IDAZKARIA / LA SECRETARIA**

Izpta./fir.: Ander Añibarro Maestre

Izpta./ Fir: Mª Virginia Carcelén García